Lezoko kale izendegiari buruzko zenbait adierazpen

Gure kale eta plazetako izenek zerbait dakarkigute burura behin eta berriro, baserri zahar baten izena, pertsonaia batena, ekintza zehatz batena... Bere izenekin gorde nahi izango bagenu bezala gure artean aspaldian galdurik, hilik, erororik... dagoena, edota beren oroitmena gure gogoan present eduki nahi izango bagenu bezala. Iraun ez duena irautarazi gure artean, beste modu laburrago batez esana.

Bakoitzak badu bere mezua, bere oroitgarria..., eta Lezokoek baita ere noski! Gure herriko kale eta plaza izenen atzean gordetzen diren adierazpenak ezagutzeko bi artikulu beren mapekin eta guzti ezagutzen ditut nik. Lehendabizikoa garaian alkate zegoen Patri Urkizuk egina da eta «LEZOKO KALE IZENDEGIAZ ZENBAIT OHAR» izenburupean, 1982.eko Mendekozte Jaien Egitarau Liburuxkan argitaratua, non kaxko zaharreko eta auzoetako kale eta plazei buruz luzatzen den.

Eta bigarrena, 1988.eko irailean argitaratua da, Kultur Batzordeak kaleratzen duen «Lezo» izeneko aldizkariaren lehenengo zenbakian. Zabarrek sinaturik dago eta «GAINTXURIZKETAKO INDUSTRIALDEEN ETA KANPO ALDEKO ERREPIDEAREN IZENDAKETA» izenburua darama. Bertan Gaintxurizketan dauden Itturrin eta Sagasti industrialdeetako kaleen eta orduan oraindik bukatu gabe zegoen kai aldeko Polentzarrene Ibilbidearen izenen arrazoiak ematen zaizkigu, aipaturiko kale guztien kokapena zehazki azaltzen diguten hiru mapekin lagundurik.

Nahi duenak, beraz, badaki nora jo. Ni segidan, eta aurretik aipaturiko artikuluez baliaturik, adierazpen xume bat emanez, saiatuko naiz.

1. **KALE NAGUSIA.**—Hauxe izan da betidanik, herriko ardatz nagusia. Badirudi lehenengo etxeak itsaso aurrean eraiki zirela, eta pixkanaka pixkanaka kale honen alde bietan lerrotu ziren. Bera izan da urte luzeetan Lezoko kale bakarra.

2. **DONIBANE KALEA.**—Kale hau beranduago sortu zen, San Joan Bataiatzaile izeneko parrokiaren azpian. Hortik datorkio izena. Eta bera izan da Lezon sortu den bigarren kalea.

3. **GURUTZE SANTUAREN PLAZA.**—Aintzinatik herriko bihotza izana. Bertan kokatzen dira Udaletxea eta Gurutze Santuaren Baseliza ospetsua, San Joan Bataiatzaile Eliza aurki dagoelarik. Baselizak eman dio izena.

4. **JAIZKIBEL HIRIBIDEA.**—Jaizkibelen magaletik Pasai Donibane aldera daraman bidea zahar zaharra dugu ere, eta betidanik lotu egin da gainera Irun eta Hondarribiatik Gaintxurizketatik barrena zetorren eta Errenteria aldera zeraman bidearekin. Gaur egun horrela da ere. Bazter bazterrean duen mendiak eman dio izena.

5. **ATZEKOATE.**—Kale Nagusia bitxi bitxia dugu, eta bere bitxikeriak kale honen zahartasunean dute iturri. Sarrera eta irteera franko ditu, batzuk kai alderantz doaz, Jaizkibel Hiribidera besteak. Azkeneko hauen artean famatuena eta ederrena denbora berean, Atzekoate izeneko bidexka dugu. Herriaren atzeko alderantz (aurrekoa itsas aldea bait da) eramaten duenez, guztiz logikoa lezoar herriak eman dioen izen eder bezain adierazgarria.

6. **ZUBITXO KALEA.**—Garai zaharretan Lezo kaxko zaharraz eta inguruko zenbait auzotxoz osaturik zegoen. Hauetako bat, Gaintxurizketako bide bazterrean eraikitzen zen Zubitxo izenekoa. Auzo alaia zen, eta bertan zenbait sagardotegi kokatzen ziren. Erreka gainean altxatxen den zubitxoak eman zien izena bai etxeari eta bai auzoari. Denborarekin Lezo haundiagotu egin zen, eta Zubitxo auzoa eta Lezoko kaxkoa kale batez lotu egin ziren, kale honek izen bera hartuz. Zubitxori Txuitxo deitu egin zaio ere modu hurbilago batez.

7. **PIKUKALE.**—Zubitxo Kalean Kale Nagusian gertatzen zaigun gauza bera errepikatzen da. Baditu sarrera eta irteera franko ezker eta eskubiarekin lotzeko. Hauetako bat Pikukale dugu, Zubitxo Kaletik Jaizkibel Hiribidera garama-

tzan bidexka. Bere aiheka batean lerden altxatxen den pikuondoak ematen dio izena.

8. **GOIKO PLAZA.**—Udaletxe atzean, eta San Joan Bataiatzailearekin mugatuz, badugu beste plaza zabal bat, gaur Goiko Plaza deitzen duguna. Badirudi garai batean haitz edo arroka galanta izan dela, eta gero haitzari tokia kenduz, gaurko frontoia eta plaza egin zirela. Oso puntu neuralgikoa da, bertatik Gurutze Santuaren Plaza, Gaintxurizketako bidegurutzea eta Lezoko Kaxko Zahar osoa ikus eta menperatu egiten bait da. Ondoan du Markesane izeneko parkea, eta probalekua beste izkinean. Goian, herri gainean egotetik, datorkio herriak maixuki eman dion izena.

9. **GILLERMO LAZON KALEA.**—Industri garapenak bere eragina haundia izan du Euskal Herri osoarengan eta baita Lezoko biztanlegoarengan ere. Herri ttikiak zirenak haundiak bihurtu ziren, eta zelaiak, lintzurak, basoak..., zeuden tokietan etxe, plaza eta kale berriak eraiki ziren. Lezon gauza bera gertatu zen, eta kaxko ondoan kale berriak sortarazi zituzten. Hauetako bat dugu honako hau. Hondarribiako artxiboko agiri batetan irakur daitekeenez, 1203. urtean, Alfonso VII. erregeak Lezoko hirixka eman omen zion Gillermo Lazon izenekoari. Badirudi herriaren izen berak zer ikuste haundia duela pertsonaia honekin. Bere omenez eman zaio izena kale honi.

10. **AGUSTINA LIZARAZU KALEA.**—Aurrekoaren garaikoa da, eta bere izenarekin 1873 eta 1965 artean bizi izan zen maixtra eta katekistaren oroitmena gogoratu nahi digu.

11. **ANTONIO PILDAIN KALEA.**—Bi aurrekoen artean eta modu paralelo batean kokatzen da. Antonio Pildain 1890 eta 1973 artean bizi izan zen. Katedratikoa, diputatua eta Canariasko gotzaia izana. Franco diktadorearen garaian jarraitu eta desterraturik izana. Guztiz beharrezkoa zen Lezoko kale bati herrikoseme ospetsu eta ilustre honen izena ematea.

12. **FRANTZISKO GAINTZA.**—Kale ttiki honek Goiko Plazatik Donibane Kalera jeisten gaitu, Allerru Elkarte aurretik igaroz. Bere izenarekin 1658. urtean Gaintxurizketako Gaintza (edo Endara) baserrian jaiotako apaizaren irudia oroitu nahi digu. Apaiza eta idazle. Irungo erretorea izan zen, eta berari zor diote irundarrek «Historia de Irún-Uranzu», non egileak herri honen kondaira agertarazten digun.

13. **HIPOLITO GEZALA.**—Gillermo Lazon Kalearen parekoa. H. Gezala (1880-1958) Lezoko Parrokiako organojolea eta herriko belaunaldi askoren solfeo irakasle izana da. Errenterian herriko musika bandako zuzendariordea ere izan zen.

14. **POLENTZARRENE.**—Kai aurrean kokatzen da. 1988. urtean bukatu zen Andreone Kultur-Etxe paretik igaroz, Donibane alderantz daraman Jaizkibel Hiribidearekin lotzen duen gunea. Aintzinatean ba omen zegoen kai aurren Polentzarrene izeneko baserria, eta honen oroimena gorde nahiean, bere izena jarri zaio kanpo aldeko ibilbide honi.

15. **LARRUN KALEA.**—Biztanleriaren igoerak gero eta eraikuntza gehiago eskatu zuen, eta honela egin ziren Jaizkibel Hiribidearen beste aldean, gaur altxatxen diren auzo berriak, beren kale, plaza eta guzti. Kale hauei Euskal Herriko zenbait mendiren izenak eman zitzaizkielarik. Hala nola, Lapurdi, Gipuzkoa eta Nafarroa artean altxatxen den mendi honen kasua. Larrun mendia, sorginen mendia, eta orain... Lezoko kale baten izena.

16. **URDABURU KALEA.**—Errenteria aldeko mendi honek bere izena uzten digu aurrekoaren parekoa dugun kale hau bataia dezagun.

17. **ARALAR KALEA.**—Gipuzkoar mendikatearen izena darama.

18. **AITZKORRI KALEA.**—Urbia aldeko gailur ospetsuaren izena darama.

19. **GORBEA KALEA.**—Hauxe dugu bostgarren, eta bere izenarekin Bizkaiko mendi famatua dakarkigu gogora. Mendia eta kanta ere, gogoa ematen bait digu «Maritxu sube al monte y verás...» lau haizetara jaurtitzeko.

20. **AUÑAMENDI KALEA.**—Nafarroa, Zuberoa eta Biarno arteko mendi honen izenarekin bukatzen da gure herrian euskal mendiei eskeinitako zikloa. Bera omen da Euskal Herriko gailurrarik haundiena, eta hemen auzo hontan ere, bera da garaiena.

21. **ELIAS SALABERRIA HIRIBIDEA.**—Kale honek du bere hasiera Gaintxurizketara daraman bidegurutzean, eta herriko pintore famatuaren izena goratzen du. Elias Salaberria (1833-1952) ospe haundiko pintorea izan zen, eta bere izena euskaldun pintore onenen artean ipintzen da.

22. **EUJENIO OTXOA.**—Polifazetiko honen izena daraman kale hau San Pedro auzoan kokatzen da. Eugenio Otxoa (1815-1872) pintore, akademikoa, idazle eta kazetari famatua izan zen.
23. **LEXO BERTSOLARI KALEA.**—Hau ere San Pedro auzoan kokatzen da, eta bere izenarekin Irurtzun baserriko semea zen bertsolaria gogorazi nahi digu (1897-1952).
24. **LOPE ISASTI PLAZA.**—San Pedron kokatzen zaigu, eta bera da herri hontako hirugarren plaza. Lope (Martinez) Isasti XV. mendeko lezotar famatua dugu. Teologian doktore, kronista eta idazlea. Bere libururik ospetsuena: «Compendio Historial de la Provincia de Guipuzcoa», bertan gipuzkoar herri guztien berezitasunak kontatzen dizkigularik. Lezori dagokionez oso gauza bitxiak kontatzen ditu.
25. **GAINTXURIZKETA BIDEA.**—Bide hau zahar zaharra dugu, eta Gaintxurizketatik barrena Irun eta Hondarribiarekin komunikatzen gaitu. Elias Salaberria Hiribidea bukatzerakoan, hasiera hartzen du, eta Gaintxurizketako kaxkoan, bere izeneko baserriaren aurrean, Irun eta Hondarribiarekin muga eginez, bukatzen du.
26. **TOMAX GARBIZU KALEA.**—Hauxe da Altamira auzoa inguratzen duen kale bakarra. Bere izenarekin bizi den lezoar konpositore eta idazle famatua goratu nahi izan da.
27. **ITTURRIN KALEA.**—Bere izeneko industrialdean dago. (108 poligonoan) Itturrin baserria zegoen tokitik pasatzen denez, bere izena hartu du.
28. **ABENDAÑO KALEA.**—Hau ere Gaintxurizketako Itturrin Industrialdean kokaturik daukagu. Abendaño baserriraino igotzen denez, bere izena hartu du.
29. **OLAIZOLA KALEA.**—Aurrekoen industrialdean kokaturik. Olaizola izeneko baserri alderantz zuzentzen denez, bere izena eman zaio.
30. **ITXU KALEA.**—Gaintxurizketan dago, hiru aurrekoen industrialdean. Itxu baserri alderantz igotzen denez, bere izenarekin bataiatu zaio.
31. **SAGASTI KALEA.**—Gaintxurizketako Sagasti Industrialdean kokatzen da, bere ardatz nagusia izanik. Industrialde honi 103. Poligonoa deitu zaio urte luzeetan. Kale hau Sagasti baserri zegoen tokirantz abiatzen denez, bere izena eman zaio.
32. **URUNE KALEA.**—Aurrekoaren moduan Sagasti Industrialdean kokaturik dago. Urune (Une) aurretik igarotzen denez, bere izena hartu du.
33. **IRURTZUN KALEA.**—Aurrekoen ondoan kokaturik. Irurtzun baserriaren aurretik pasatzen da, eta horregatik eman zaio bere izena.
34. **HARITZBAKAR KALEA.** — Irurtzun eta Sagasti kaleen artean kokatzen da. Bere izeneko baserri alderantz dijoanez, bere izena eman zaio.
35. **URDABURU ALDEKO PLAZA.**—Hauxe dugu, herrian sortu zaigun laugarren plaza. Urdaburu auzoan kokatzen da eta bere azpitik lur azpiko aparkalekua eginik dago. Urdaburun dagoenez, jende askok Urdaburu Plaza deitzen dute, baina bere baitan Karlos Saldise zenaren omenezko oroitgarria dagoenez, beste askok Karlos Saldise Plaza deitzen diote. Inauguraturik ez dagoenez, ez du oraindik inolako izen ofizialik. Denborak eta korporazioak dute hitza, ni nire aldetik bigarren izenaren aldekoa naiz. Karlos Saldisek, ondo merezi bait du, nire uste apalez, holako esker ona Lezoko herriaren aldetik.

JOSEBA PRESENTACION BARANDIARAN